HACKATHON DE FP innova & emprende

2. EDIZIOA

# Enpresa bat zara?
## Erronka batekin PARTE HARTU!



Antolatzen du:

formación profesional NAVARRA | lanbide heziketa NAFARROA | NA

Kolaboratzen du:

CaixaBank | dualiza

## Non? Noiz? Zenbat balio du?

2025eko **abenduaren 18an, ostegunarekin, Baluarten**, Nafarroako LHko Hackathonaren 2. edizioa ospatuko dugu. Parte hartzea **DOAKOA** da! Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko ditu gastuak. Eskerrik asko esperientzia honen parte izateagatik!

## Zer da erronka bat?

Erronkaz ari garenean, erakundeak LHko ikasle talde bati Hackathonean aurkeztuko dion **desafioz** ari gara. Talde horrek, etenik gabeko 12 orduko jardunaldi batean gogor lan egingo du erronkari irtenbide bat aurkitzeko.

Erronka enpresak bere egungo baliabideekin arrazoi ezberdinengatik aurre egin ezin izan dion edozein erronkari dagokio, hau da :

- Denbora falta
- Profil profesional egokirik ez izatea
- Barne-ideien falta
- Enpresak martxan jarri nahi dituen erronka edo proiektu berriak
- Araudi edo lege erregulatzaileetara behar bezala egokitzea

## Nolakoa izan behar du ERRONKAK?

- Arazo bakar batean fokalizatu behar da
- Gehienez esaldi batean edo bitan deskribatu behar da
- Ezin du konponbidea eduki
- Irtenbide bat baino gehiago bilatzeko aukera eman behar du. Ez du izan behar irtenbide bakarra duen erronka
- Ez du hipotesirik edo suposiziorik izan behar.

***Adibidea:*** *Etxean kontsumitzen dugun uretan mikroplastikoak murriztea*

## Zer xehetasun maila behar du ERRONKAK?

Ondo zehaztutako erronka batek aukera emango digu jada esploratutako bideetan lan egitea saihesteko, eta gure helburuan zentratzen lagunduko digu. Bestalde, aurretik baztertutako bideak edo ideiak arakatzeak irtenbide egokira eraman gaitzake.

***Adibideak:***

- *Kostuak aukera eman behar du etxe guztietan ezartzeko*
- *Material mugikorren erabilera eta ekonomia zirkularraren aplikazioa errespetatuko dira*
- *Aurrekontua doitzea eta optimizatze balioetsiko da.*

HACKATHON DE FP innova & emprende

formación profesional NAVARRA | lanbide heziketa NAFARROA

## Zein da zuen egitekoa enpresa gisa erronkan?

- Hackathon egiten den bitartean, enpresaren ordezkari bat egon beharko da zehaztutako ordutegietan:

**9:15 Irekiera eta erronken aurkezpena** **

**9:45 Talde lana** **

**18:00 Enpresaren partetik check point-a** *

**19:30-20:30 Battle pitch** *

**20:30 Sarien banaketa eta itxiera** *

## Nola aurkeztu behar diezue erronka Hackathoneko parte-hartzaileei?

- 3 minutu dituzue inaugurazio-ekitaldian aurkezteko. Zuen izena, enpresaren izena eta proposatzen duzuen erronka adierazi besterik ez duzue egin behar.
- Taldeka banatu ondoren, enpresak gehienez 15 minutu izango ditu ikasleei erronka azaltzeko. Aurkezpen digital baten bidez egiten bada, ordenagailu eramangarri bat ekarri beharko da. (Antolakuntzak monitore bat jarriko du talde bakoitzeko aurkezpena ikusteko)
- Enpresak, erronka aurkezteaz gain, parte-hartzaileei erronkari aurre egiten laguntzeko erabilgarri deritzon dokumentazio osagarri guztia eman dezake. Informazio horretan, txostenak, metrikak, artikuluak eta azterlanak sar daitezke, besteak beste.



# AGENDA

**2. EDIZIOA**

HACKATHON DE FP innova & emprende

**9:00 Akreditazioak**

**9:15 Irekiera eta erronken aurkezpena ****

**9:45 Talde lana ****

**14:00 Bazkaria**

**15:00 Talde lana**

**18:00 Enpresaren partetik check point-a ***

**19:30-20:30 Battle pitch ***

**20:30 Sarien banaketa eta itxiera ***

***- Behin-behineko agenda -***

*** Ikurrarekin markatutako ordutegiek enpresaren ordezkariren baten presentzia beharrezkoa dela adierazten dute.*

** Ikurrarekin markatutako ordutegiek adierazten dute presentzia gomendagarria dela, baina ez derrigorrezkoa. (Erronkaren garapen fasean parte hartu duena ez bezalakoa izan daiteke)*



HACKATHON DE FP innova & emprende

## PARTE HARTZERA ANIMATUKO ZARETE?

*Aukera bikaina da LHko ikasleei enpresa-mundua hurbiltzeko, talentu berria aurkitzeko eta enpresen artean lanbide heziketa ezagutarazteko.*

**Jarri gurekin harremanetan**
smoderna@navarra.es
848428616